

VIII. IGANDEA URTEAN ZEHAR (C)

Otoitza

Jainko Jauna, egizu, mundu honek
zure asmoen neurrian aurrera egin dezala;
emaiezu herri guztiei egiazko bakea,
eta Elizari, zure zerbitzu santuan zintzoki irauteko poza.
Zure Seme Jesu Kristo.

I. IRAKURGAIA: Si 27, 5-8

Ez inor goretsi, zer dioen entzun gabe.

Siraken liburutik

Galbaia astintzean ahotza gelditzen da;
hala berean gizakiaren okerrak, azterketa egitean.
Labeak egiaztatzen du eltzegilearen ontziaren ona,
gizakiaren balioa bere pentsaeretan da egiaztatzen.
Zuhaitza nola dagoen landua,
haren fruituak du erakusten;
gizakiaren bihotza nolakoa den, haren hitzak azaltzen.
Ez inor goretsi, zer dioen entzun gabe,
hitza da eta gizakia ezagutzeko bidea.

ERANTZUN SALMOA: Sal 91, 2-3. 13-14. 15-16

R/. On da Zuri eskerrak ematea, Jauna.

On da Jaunari eskerrak ematea,
eta zure izenari, Goi-goiko, eresi egitea;
goizean iragartzea zure maitasuna,
eta gauez zure leialtasuna. R/.

«Loratuko da zintzoa palmondoa bezala,
haziko da Libango izaia bezala;
Jaunaren etxean landatua,
gure Jainkoaren atarietan loratua. R/.

Emango dute uzta zahartzaroan ere,
 mardul eta gordin egongo dira.
 Iragarriko dute zein zuzena den Jauna,
 nire Harkaitza, Beragan gaiztakeriarik ez daukana.» R/.

II. IRAKURGAIA: 1 Ko 15, 54-58

*Garaipena ematen digu,
 Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.*

San Paulo Apostoluak Korintotarrei

Senideok: Ustelkor hau ustelezinez jazten denean, eta hilkor hau hilezkorrez, orduan beteko da idatzirik dagoen hitza: «Garaipenak irentsi egin du heriotza. Non da, herio, zure garaipena? Non da, herio, zure eztena?» Heriotzaren eztena bekatua da; eta bekatuaren indarra, Legea. Eskerrak Jaungoikoari, garaipena ematen digulako Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez!

Beraz, ene senide maiteok, iraun gogor eta sendo; egin lan gero eta gehiago Jaunarengatik, badakizue eta Jaunak ez duela saririk gabe utziko zuen nekea.

EBANJELIOA: Lk 6, 39-45

Aleluia: Flp 2, 15b-16a

R/. Aleluia.

V/. Izar argiak bezala agertzen zarete munduan,
 bizitzaren zentzubide bat emanez. R/.

Bihotzean ugari dagoenetik mintzo da ahoa.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik

Aldi hartan, Jesusek parabola hau esan zien bere ikasleei: «Itsua bat jarri al daiteke beste baten itsuaurreko? Ez ote dira biak zulora eroriko? Ikaslea ez da irakaslea baino gehiago; ondo ikasia denean, bere irakaslea adina izango da. Zertan zaude anaiaren begiko lasto izpiari begira, eta ez zara konturatzen zerorren begian duzun habeaz? Nola esan diezaiokezu zure anaiari: "Anaia, utzidazu zeure begiko lasto izpia ateratzen", zerorren begiko habea ikusten ez duzularik?

Itxurazalea zu! Atera ezazu lehenik zeure begiko habea, eta orduan garbi ikusiko duzu, anaiaren begitik lasto izpia ateratzeko.

Ez da zuhaitz onik, fruitu txarrak ematen dituenik; ezta zuhaitz txarril

fruitu onak ematen dituenik. Zuhaitz bakoitza, bere fruituetatik ezagutzen da. Elorritik ez da pikurik biltzen, ezta sasitik ere mahatsik hartzen. Gizon onak fruitu ona ateratzen du bere bihotzeko gordailu onetik; eta gaiztoak txarra, bere gaiztotik; bihotzean ugari dagoenetik mintzo da ahoa».

Oparigaien gainekoa

Jainko Jauna, Zuk emana dugu
guk Zuri eskaintzen dizuguna,
eta Zuk gure zerbitzu bezala hartzen diguzu;
egizu, gure irabazirako ematen diguzunak
betiko saria ekar diezagula.
Jesu Kristo.

Jaunartze ondorengoa

Zure dohain salbagarriak harturik, Jauna,
apalik eskatzen dizugu:
orain janaritzat ematen diguzun sakramentu honek
betiko bizia irits diezagula.
Jesu Kristo.